

MATERIALISMO HISTERIKOA

Biharamunik ez



UXUE APAOLAZA LARREA

Matutek twitterren idatzi zuen Galiziako hauteskunde kanpainen Feijóok egindako adierazpen batzuen harira: "jende honek ezin du irabazi". Eta irabazi dute. BNG igo da asko, diote denek. TVEn esan dute alderdi nazionalistek ez dutela zertan txarrak izan (espainiarra ez diren nazionalismoez ari ziren). Batekoen eta bestekoen manerak azpimarratu dituzte. Ea estatu osora zabaltzen diren Galiziako bozetako manerak. Galizian ez dago biharamunik, beraz.

Ezkerreko nazionalismoan, beraz, azkenean, diote, manerei eusten dien hautagai bat. Gurean ere, berdin. Ez dakit manerak bakarrik diren. Otxandianoren aurkezpen festan, hautagaiaren, hautagaitzaren politika egiteko modua bakarra, lehenengoan ezagutzekoa nahi zutela esan zuten, zer bezala? *Channellen* jantzien pare. Ni naiz Otxandianoren edozein hitzartze gehien gozatuko duena, gustatzen zaizkit mendeko perpausak dituzten eztabaidak: txantxak txantxa ("edukiko ditu benetako dioptriak betaurrekoak justifikatzeko, ez?"), arantzak arantza (gizon cis heteronormala), gozatuko dut. Gozatuko nuke buruz burukoan mailako norbait balu. Nor du? Pradales: hemen emotikono bat beharko nuke. Ez dut antzematen estrategia zein den, hauteskundeak galtzea zertan den komenigarria EAJrentzat.

Politikariak, pentsatzen dut gure arabera aukeratzen dituztela, guk botatuko dugula uste dutena jartzen dutela. Nire asmoa dena nazionalizatzea balitz, hain zuzen, kontrako itxurako norbait jarri beharko nuke oraintxe, zerga progresiboek (eta herentziaren gaineko zergak bereziki) beldurtu egiten duten gizarte batean. Manera onekoa, eta *Channellekin* konparagarria den norbait jarriko nuke, ni bezalakoan zaletasuna elikatuko duena. Baina boto emale kopuru hori ez da masara iristen. Ezingo nuke nazionalizatu irabazita ere. Eta masa ez delako, izango da paktua. Eta izango da paktua, ezin delako besterik izan, demokratikoki. Manera onekoa ez, gorria denean, independentzia denean... hasiko dira, berriro, manera txarrak. Ez alde honetatik. Momentuz, dena izango da gaur, dena izango da gipuzkoar klase ertain.

Ez da egongo biharamunik. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Sexu erasoak

Ehunka herritar Azpeitiko plazan elkartu ziren, inauterietan jazotako bi sexu eraso salatzeke. Bortxaketaren eta beste sexu erasoaren berri izan ostean, bertan behera geratu ziren jaiak. Gizonezko bat atxilotu zuten, ustez bi sexu erasoaren egile delakoan.

Euskarafobia

Helegitea jarri diote 119 administrari-plaza egonkortzeari, hizkuntza eskakizuna dutelako. Gipuzkoako Foru Aldundiko behin-behineko 119 langileak egonkortzeko egin den bidea bertan behera gelditu daitekeela ohartarazi dute LABek eta ELAK.

Feminismoa

Bizi baldintzen eta pribatizazioaren gogortzea izan dira Talaia Feministaren 2023ko ondorio nagusiak. Ezkerreko 170 emakume feminista subiranista elkartu dira, 2023ko sei gertakari aztertu eta Talaia Feministaren behin betiko txostena adosteko.